

Donostian, mila bederatzireun eta berrogeitamairugarren urteko Iraila-Buruilaren ogetiabosteunan, Gipuzkoako Ekauta-jauregian, Etxaide jauna maipuru dala ta Elissalde, Irigarai, Gorostiaga, Dassance, Lafitte, Villasante, Mulier ta Oleaga euskaltzainak eta Labaien urgazlea etofirik, egiten dau Euskaltzaindiak egungo deitutako batzarra.

Araudizko otoitza ondoren lenaufeko batzar-agiria irakurri da ta onetsia izan da.

Irigarai jaunak ongi-etofia dagokio Mulier Euskaltzain barriari.

Azkue jaunak Euskaltzaindiari ta beronen orde Bizkaiko Ekautari utziriko liburuaz, Jorrailaren ogeitalauan artu zan erabagia adierazo jakon Ekauta ari, ta beronek erantzun dau pozafen jakin dauala barri ori, ta eskerzor dagoala Azkue jaun goragarriagan.

Urrango irakurri da Bizkaiko Ekautaren Jakintza-Batzordearen idazki bat. Diño, orainarte Euskaltzaindi oneri emoten dautsan bost mila peseta dun urte-saria, aurrerantzean amar mila pesetaraño geitua izango dala, baña Gorostiaga euskaltzain gutuntzaina, Euskaltzaindi-etxean egunero goizeko amarretatik egurdiko ordubatetarrate gitxienez egon dadila ta aitatuko urte-saririk lan orren ordainez, ilabete bakoitzean laureun edo urtean laumila ta zortzireun peseta emon dakiozala gura leukela. Olan ebatzi da ao batez; eta Jakintza-Batzordeari esan bekio, eskerrak emonaz.

Gorostiaga gutuntzainak adierazoten dau asi dala liburu-zerrendea gertatzen.

Etxaide jaunak diño, Irigarai jaunaren bitartez artu dirala Nafarroako Ekautaren 1951, 1952 ta 1953 garren urte sariak; guztiz amabost mila peseta, ta eskerrak agertu dautsazala emoileari. Atseginez entzun dira barri oneek.

Irigarai jaunaren asmoz, Euskaltzaindiak Idazti-sariketa bat atondu bear leuke, Iztegia, Ipuinak eta beste elerti lanak gaitzat arturik. Ontzat artu da asmo au ta urrango batzarrera Irigarai beronen egitamua ekari dagiala erabagi da.

Oleagak diño, Azkue jaunak bere iztegiaren geigarri batzuk gertuta eukazala ta gergarri orreek argitaratzea egoki litzakela. Onetsia izan da gogakizun au.

Oleaga berak diño "Latsibi" deritzan gertirudi bat be Azkue jaunak egindu ta argitaratu guarik eukala ta Euskaltzaindiaren Euskera aldirokoan zatika-zatika argitaratzea egoki litzakela. Onan ebatzi da.

Villasante jaunak adierazoten dau Kantabriako Prantzizkotarrak aldiroko bat euskeraz argitaratu guarik dabilzala ta asmo ori aurrera eroateko Euskaltzaindiaren eritzia artu gura leukela. Euskaltzaindiak atseginez ikusten dauala esan bekioe.

Azkenez Elissalde jaunak, Mitxel Labageri jaunaren euskaltzaletasuna ta irabaziak goraldurik, urgazle izentau bear litakela diño ta ao-batez onan ebatzi da.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
I. M.^a Etxaide

Zadorlaria
Nazario Oleaga